

## MAITEMINDUAREN KOPLAK

Anartz Izagirre Zubimendi

*Azpeitia*

Etor zaitez eta esaidazu,  
joan zaitez eta utzidazu,  
ez dago erdibidekorik.  
Denborak guztia sendatzen omen du,  
ba ez,  
mediku eskasa da.  
Gure musuak ez ditu inoiz haize bortitz batek eramango,  
giltzapeturik dauzkat, zeuk noiz askatuko zain,  
maitasuna da benetako medikua eta ez denbora,  
baina zeu zara giltza, gakoa.  
Itxi atea, itzali argia, itxi begiak, zabaldu eskuak,  
besarkatu nazazu, sentitu nazazu,  
zure berotasunarekin urtu nahi dut,  
zurekin aspertu nahi dut.  
Urdinez margotuko naiz, zure printze izan nadin,  
zure zainetan zehar bidaiatuko dut,  
agudo,  
bihotzaren bihotzera bidaiatuko dut  
zalu,  
bertan geldituko naiz, betiko.

Usoak usatzen diren arren,  
nire itxaropenaren usoak hor dirau, tinko,  
zeu zara bere janaria,  
elika ezazu, elika nazazu.  
Zigarrokina bazina lez desegin nahi zaitut,  
emeki,  
leun.  
Eskuartean duzu maitasuna,  
eskuartean naukazu,  
baina,  
usoa bele beltz bihurtu duzu,  
bihotza harri,  
janaria pozoin,  
zainak tutu,  
printze urdinaren urdina ezabatu duzu,  
baina zurekin bidaiatu nahi dut,  
infernura,  
laba gorian nola erretzen zaren ikustera!